

## EGUZKIARI ABESTIA

(F. Mistral'ena)

Provenza'ko eguzki audi, - ipar-aizearen aita-kide pozkor, - zu, Durenko odol  
gabetzen dozun ori - Krau'ko ardao ibai bat bezela.

Dizdiz eragiozu sutontzi gorri orri! - Egotz eizuz itzalak eta izurriak! - Arin!  
Arin! Arin! - Ager zakiguz, eguzki eder!

Zure garrak erreten gaitu, - ta, alan be, uda etortean, - Aviñon, Arles eta Mar-  
sellak - jainko bat legez zaitue artzen.

Dizdiz eragiozu zeure sutontzi gorri orri! - Egotz eizuz itzalak eta izurriak! -  
Arin! Arin! Arin! - Ager zakiguz, eguzki eder!

Zu ikusteko, lertxunak - gero ta gorago digoe, - eta ziza gaixoa - kardulatz  
oiñean azten da.

Dizdiz eragiozu zeure sutontzi gorri orri! - Egotz eizuz itzalak eta izurriak! -  
Arin! Arin! Arin! - ager zakiguz, eguzki eder!

Eguzkiak, lagunak, lana ta - abestiak sortzen dauz, - eta aberriazko maitasun-  
sua - , eta errimin gozoa.

Dizdiz eragiozu zeure sutontzi gorriari! - Egotz eizuz itzalak eta izurriak! - Arin!  
Arin! Arin! - Ager zakiguz, eguzki eder!

Eguzkiak ludia argitzen dau - eta berotuz, berau janaritu... - Ezpei iñoi estali! -  
.ororen azkena bait litzake.

Dizdiz eragiozu zeure sutontzi gorriari! - Egotz eizuz itzalak eta izurriak! - Arin!  
Arin! Arin! - Ager zakiguz, eguzki eder!